

# ADMINISTRARIEN KIDEGOA

**1.ETA 2. PROBAK**

**A EREDUA**

**BEC, 2010-09-25**

**1 HERRI DEFENDATZAILEARI DAGOKIONEZ, GEZURRA DA:**

- 1a) Gorte Nagusien komisionatua dela.
- 1b) Haren agintaldiak bost urte irauten duela.
- 1c) Bi ganberetako gehiengo soila behar dela hura hautatzeko.
- 1d) Babes-errekurtsoa aurkez dezakeela.

**2 KONSTITUZIOKONTRAKOTASUNAREN GAIA AURKEZ DEZAKETE:**

- 2a) Epaileek.
- 2b) Auzi batera pertsonatutako pertsona fisikoek eta juridikoek.
- 2c) Estatuko gobernuak.
- 2d) Berrogeita hamar diputatuk edo berrogeita hamar senatarik.

**3 ZENBAT DIPUTATUK ERATZEN DUTE KONGRESUA?**

- 3a) 300 diputatuk, Konstituzioak 68.1 artikuluan ezartzen duenez.
- 3b) 350 diputatuk, Konstituzioak 68.1 artikuluan ezartzen duenez.
- 3c) 450 diputatuk, Konstituzioak 68.1 artikuluan ezartzen duenez.
- 3d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**4 ZENTSURA-MOZIOA:**

- 4a) Ministro jakin baten kontra ezar daiteke.
- 4b) Eraginik gabe geratzen da diputatueng kongresua desegiten denean.
- 4c) Kontrol onuragarrirako mekanismoa da.
- 4d) 25 diputatuk elkar hartuta aurkeztu behar dute.

**5 ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAMENDUA...**

- 5a) Konstituzioaren VII. tituluan dago ezarrita.
- 5b) Konstituzioaren VIII. tituluan dago ezarrita.
- 5c) Konstituzioaren IX. tituluan dago ezarrita.
- 5d) Konstituzioaren VI. Tituluan dago ezarrita.

**6 ADIERAZI BAIEZTAPEN HAUEN ARTEAN ZEIN EZ DEN ZUZENA:**

- 6a) Estatu kide bakoitzeko komisario banarekin osatzen da Europako Batzordea.
- 6b) Europako Batzordearen osaera Europako Parlamenturako hauteskundeen ostean berritzen da.
- 6c) Europako Batzordeak Kontseilu Europarraren aurrean du erantzukizun politikoa.
- 6d) Kontseiluak nazioarteko hitzarmenak egin ditzake merkataritzaren arloan.

**7 HERRIALDE HAUETAKO ZEINI DAGOZKIO ESERLEKU GEHIAGO EUROPAKO PARLAMENTUAN?**

- 7a) Alemaniari.
- 7b) Frantziari.
- 7c) Italiari.
- 7d) Erresuma Batuari.

- 8 NORTZUEK AURKEZ DITZAKETE ARAU-HAUSTEAREN ERREKURTSOAK EUROPAR BATASUNEKO JUSTIZIA AUZITEGIAN?**
- 8a) Epaileek.
  - 8b) Herritarrek.
  - 8c) Kontseilu Europarrak.
  - 8d) Estatu kideek eurek.
- 9 EUSKO LEGBILTZARREAN LELEGINTZARAKO HERRI-EKIMENAREN BIDEZ LEGE-PROPOSAMENAK AURKEZTEKO, ZENBAT SINADURA BEHAR DIRA, GUTXIENEZ?**
- 9a) Hamabost mila sinadura.
  - 9b) Hogei mila sinadura.
  - 9c) Hogeita hamar mila sinadura.
  - 9d) Hamar mila sinadura.
- 10 EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUA ERREFORMATZEKO PROZEDURA OROKORRA:**
- 10a) Lau urrats ditu prozedura horrek, Autonomia Estatutuaren 46. artikuluaren arabera: ekimena, Eusko Legebiltzarrak onestea, Gorte Nagusiek onestea, eta hautesleek erreferendum bidez onestea.
  - 10b) Bost urrats ditu prozedura horrek, Autonomia Estatutuaren 46. artikuluaren arabera: ekimena, Eusko Legebiltzarrak onestea, Gorte Nagusiek onestea, Eusko Jaurlaritzak onestea, erreferendum bidez onestea.
  - 10c) Hiru urrats ditu prozedura horrek, Autonomia Estatutuaren 46. artikuluaren arabera: ekimena, Eusko Legebiltzarrak onestea, erreferendum bidez onestea.
  - 10d) Bi urrats ditu prozedura horrek, Autonomia Estatutuaren 46. artikuluaren arabera: Eusko Legebiltzarrak onestea eta erreferendum bidez onestea.
- 11 EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA-ESTATUTUAREN ERREFORMA HASTEKO LEGITIMAZIORIK EZ DU:**
- 11a) Lehendakariak.
  - 11b) Gorte Nagusiek.
  - 11c) Eusko Legebiltzarrak, diputatuen bosten batek proposatuta.
  - 11d) Eusko Jaurlaritzak.
- 12 EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA-ESTATUTUAREN AURREIKUSITAKO ARBITRAJE-BATZORDEA:**
- 12a) Sei mahaikidek eta mahaiburu batek osatuko dute.
  - 12b) Bost mahaikidek eta mahaiburu batek osatuko dute.
  - 12c) Hamabi mahaikidek eta mahaiburu batek osatuko dute.
  - 12d) Bederatzi mahaikidek eta mahaiburu batek osatuko dute.

**13 KONTZERTU EKONOMIKOAREN ARABERA, NORAK FINKATZEN DU KUPOA ZEHAZTEKO METODOLOGIA?**

- 13a) Eusko Legebiltzarrak.
- 13b) Batzar nagusi bakoitzak.
- 13c) Gorte Nagusiek.
- 13d) Foru-diputazio bakoitzak.

**14 BALDIN ETA EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA-ESTATUTUAREN 39. ARTIKULUAN AURRIKUSITAKO ARBITRAJE-BATZORDEAREN ERABAKIKA ADIERAZTEN BADU EUSKO LEGBILTZARRAREN LEGE-PROPOSAMENAK ALDAKETA DAKARRELA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ERAKUNDE ERKIDEEN ETA FORU-ERAKUNDEEN ARTEKO ESKUMEN-BANAKETAN, EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA-ESTATUTUAZ BESTEKO LEGETAN EZARRITAKOAN:**

- 14a) Eusko Jaurlaritzak erretiratu egin beharko luke proposamena.
- 14b) Eusko Jaurlaritzak erabakiko luke eusten dion edo ez proposamenari.
- 14c) Eusko Legebiltzarrak erabakiko luke ekimenari eutsi edo ez.
- 14d) Legebiltzarreko Mahaiak Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurarako deialdia egingo luke proposamena molda dezan, hala behar balitz.

**15 ADIERAZI BAIEZTAPEN HAUEN ARTEAN ZEIN EZ DEN ZUZENA:**

- 15a) Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako erakunde laguntzailearen figura sortu da.
- 15b) Generoaren araberako eraginaren aldez aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartu dira.
- 15c) Euskal Autonomia Erkidegoko legean ordezkari eta oreaktua buruz egiten den aipamenak ehuneko 50/50 motako ordezkari eta adierazi nahi du.
- 15d) Legedian badira hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren erabilera buruz zuzen-zuzenean egiten diren aipamenak.

**16 GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA EGITEKO JARRAIBIDEAK:**

- 16a) Emakundek onartuko ditu, Eusko Jaurlaritzak proposatuta.
- 16b) Lehendakariak onartuko ditu, Emakundek proposatuta.
- 16c) Eusko Legebiltzarrak onartuko ditu, Emakundek proposatuta.
- 16d) Eusko Jaurlaritzak onartuko ditu, Emakundek proposatuta.

**17 AURREKONTUEK AUKERA EMANEZ GERO, ZEIN EGUNETATIK AURRERA EDUKI BEHAR DITUZTE AUTONOMIA-ERKIDEGOEK ETA TOKI-ADMINISTRAZIOKO ERAKUNDEEK EGOKITURIK BEREN PROZEDURAK HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEARREN ARABERA?**

- 17a) 2011ko abenduaren 31tik aurrera.
- 17b) 2010eko abenduaren 31tik aurrera.
- 17c) 2009ko abenduaren 31tik aurrera.
- 17d) 2008ko abenduaren 31tik aurrera.

- 18 HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAK 3. ARTIKULUAN AIPATZEN DITUEN HELBURUEN ARTEAN, EZ DA AIPATZEN:**
- 18a) Informazio-gizartea garatzen laguntza.
  - 18b) Administrazio-prozedurak soiltza.
  - 18c) Kostuak gutxitzea.
  - 18d) Administrazioan gardentasuna sustatzea.
- 19 HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA:**
- 19a) Eskabide elektroniko baten edukia eskuratu gabe hiru egun baliodun igarotzen badira, joko da jakinarazpena ezetsia izan dela eta izapidea gauzatu egin dela, eta prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituko du.
  - 19b) Eskabide elektroniko baten edukia eskuratu gabe hamar egun baliodun igarotzen badira, joko da jakinarazpena ezetsia izan dela eta izapidea gauzatu egin dela, eta prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituko du.
  - 19c) Eskabide elektroniko baten edukia eskuratu gabe zazpi egun baliodun igarotzen badira, joko da jakinarazpena ezetsia izan dela eta izapidea gauzatu egin dela, eta prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituko du.
  - 19d) Eskabide elektroniko baten edukia eskuratu gabe bost egun baliodun igarotzen badira, joko da jakinarazpena ezetsia izan dela eta izapidea gauzatu egin dela, eta prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituko du.
- 20 ZER DIO KONSTITUZIOAK LELEGINTZARAKO ESKUORDETZARI BURUZ?**
- 20a) Espainiako Konstituzioak debekatu egiten du legegintzarako eskuordetza.
  - 20b) Espainiako Konstituzioak debekatu egiten du legegintzarako eskuordetza legeari erreserbatutako gaiei buruzkoa izatea.
  - 20c) Espainiako Konstituzioak debekatu egiten du legegintzarako eskuordetza lege organikoari erreserbatutako gaiei buruzkoa izatea.
  - 20d) Espainiako Konstituzioak onartzen du legegintzarako eskuordetza edozein gairi buruzkoa izatea.
- 21 BA AL DAGO ALDARRIKATU OSTEAN DIPUTATUEN KONGRESUAK BALIOZKOTU BEHARREKO ARAURIK?**
- 21a) Ez, ez dago bat ere.
  - 21b) Bai, testu artikulatuak.
  - 21c) Bai, testu bateratuak.
  - 21d) Bai, lege-dekretuak.
- 22 ZEIN ANTOLAKETA-PRINTZIPIORI ZOR ZAIO ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALA IZENEKOA ERATZEN DUTEN BEREZKO NORTASUN JURIDIKODUN ENTE INSTRUMENTALAK AGERTZEA?**
- 22a) Lurralde-desentralizazioaren printzipoari.
  - 22b) Desentralizazio funtzionalaren printzipoari.
  - 22c) Lurralde-deskontzentrazioaren printzipoari.
  - 22d) Deskontzentrazio funtzionalaren printzipoari.

**23 NOLA DERITZO GOBERNADORE ZIBILAK ORDEZKATU ZITUEN AGINTARITZARI?**

- 23a) Gobernuaren ordezkaria.
- 23b) Gobernuaren ordezkariordea.
- 23c) Idazkariordea.
- 23d) Zuzendariorde delegatua.

**24 NORTZUEK OSATZEN DITUZTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEKO BATZAR NAGUSIAK?**

- 24a) Ordezkari hautetsiek.
- 24b) Eusko Legebiltzarrak izendatutako ordezkariek.
- 24c) Lurralde historiko bakoitzeko udalako alkateek.
- 24d) Lurralde historiko bakoitzeko diputatu nagusiak izendatutako foru-diputatuek.

**25 ZER ALDE DAGO ADMINISTRAZIO-EGINTZA BATEN ETA ADMINISTRAZIO-KONTRATU BATEN ARTEAN?**

- 25a) Aldea da kontratua ez dela alde bakarreko adierazpena.
- 25b) Aldea da kontratua jardun materiala dela.
- 25c) Aldea da kontratua erregelamendugintza-ahala erabiltzetik sortzen dela.
- 25d) Aldea da kontratua ez dagoela administrazio-zuzenbidearen pean.

**26 ZER KALIFIKAZIO JURIDIKO EMAN BEHAR ZAIO GORA JOTZEKO ERREKURTSO BATEN EBAZPENARI?**

- 26a) Administrazio-egintza bat da; izapidetze-egintza, zehazki.
- 26b) Behin betiko administrazio-egintza da, administrazio-bidea amaitzen duena.
- 26c) Behin betiko administrazio-egintza da, administrazio-bidea amaitzen ez duena.
- 26d) Epai judizial irmoa da.

**27 ZER BEREZITASUN DUTE EGINTZA PLURALEK?**

- 27a) Hartzaile guztiei banan-banan jakinarazi behar zaizkie.
- 27b) Argitaratu egin behar dira jakinarazi ordez.
- 27c) Argitaratzuz osatu egiten da jakinarazpena.
- 27d) Ez dira ez jakinarazi ez argitaratu behar.

**28 ESKUMEN HAUETAKO ZEIN ESLEITZEN DIO KONSTITUZIOAK ESTATUARI ESKUMEN ESKLUSIBO GISA?**

- 28a) Administrazio-prozedura guztiak arautzeko eskumena.
- 28b) Administrazio-prozedura erkidea arautzeko eskumena.
- 28c) Administrazio-prozedura guztien oinarrizko arauketa egiteko eskumena.
- 28d) Administrazio-prozedura guztiak soiltzeko eskumena.

**29 NOLA ESKURATZEN DA ADMINISTRAZIO-EGOITZA?**

- 29a) Jaiotzarekin.
- 29b) Adin nagusitasunarekin.
- 29c) Zergak ordaintzearekin.
- 29d) Erroldatzearekin.

**30 ZER BERMATU NAHI DA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN LEGEAN AIPATZEN DEN EZ PARTE HARTZEKO BETEBEHARRAREKIN?**

- 30a) Administrazio-organoak eratzen dituzten pertsonen inpartzialtasuna.
- 30b) Administrazio-organoek erabakiak arin hartzea.
- 30c) Kide anitzeko administrazio-organoek erabakiak aho batez hartzea.
- 30d) Administrazioak bere jardunak isilpean gauzatzea.

**31 HIZKUNTZA KOOFIZIALEN ARLOAN, ZEIN BETEBEHAR EZARTZEN DIE ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN LEGEDIAK HERRI-ADMINISTRAZIOEI?**

- 31a) Administrazio-egintza guztiak bi hizkuntzetan idaztea.
- 31b) Gaztelaniaz idatzitako agiriak beste hizkuntza ofizialera itzultzea.
- 31c) Hizkuntza koofiziala duen autonomia-erkidegoan eragina izan behar duten agiri guztiak gaztelaniara itzultzea.
- 31d) Hizkuntza koofiziala duen autonomia-erkidegotik kanpo eragina izan behar duten agiriak gaztelaniara itzultzea.

**32 HONAKO ESKUBIDE HAUEN ARTEAN, ZEIN AITORTZEN DU LEGEAK?**

- 32a) Jatorrizko agiririk ez aurkezteko eskubidea.
- 32b) Fotokopia konpultsaturik ez aurkezteko eskubidea.
- 32c) Eskabidearekin batera aurkeztutakoak baino agiri gehiago ez aurkezteko eskubidea.
- 32d) Administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dituen agiriak ez aurkezteko eskubidea.

**33 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN LEGEDIAREN ARABERA, BA AL DAGO AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ERREGISTRO BATEAN BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATEKO UDALARI ZUZENDUTAKO IDAZKIA AURKEZTERIK?**

- 33a) Ez.
- 33b) Bi administrazioen artean horretarakoxe egindako hitzarmena behar da.
- 33c) Bi administrazioek aukera hori erregelamendu bidez garaturik eduki behar dute horretarako.
- 33d) Bai.

**34 ZERGATIK DA GARRANTZITSUA ZEHAZTEA ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BAT ADMINISTRAZIO BATEK BERE KABUZ HASI DUEN EDO PERTSONA INTERESATUAK ESKATUTA HASI DEN?**

- 34a) Hori zehaztuta jakiten baita espedientea antolatzeko atazak Administrazioari dagozkion edo pertsona interesatuari dagozkion.
- 34b) Hori zehaztuta jakiten baita prozeduraren instrukzio-egintzarik egin behar den edo ez.
- 34c) Hori zehaztuta jakiten baita prozedura ebazpen bidez edo beste era batez amaitu behar den.
- 34d) Hori zehaztuta jakiten baita ebazpena epe barruan emateko betebeharra ez betetzeak era bateko edo besteko ondorioak ekarriko dituen.

**35 ZEIN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA MOTARAKO DAGO AURREIKUSITA AURRETIAZKO INFORMAZIO-ALDIA?**

- 35a) Administrazioak bere kabuz hasten dituen administrazio-prozeduretarako.
- 35b) Pertsona interesatuak eskaturik hasten diren administrazio-prozeduretarako.
- 35c) Administrazio-prozedura guztieta rako, edozein dela ere hasteko modua.
- 35d) Administrazio-prozedura baterako ere ez.

**36 JO AL DAITEKE ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BAT PRESAKOTZAT?**

- 36a) Bai, eta ezarritako epeak luzatzea dakar gainera.
- 36b) Bai, eta ezarritako epeak murriztea dakar gainera.
- 36c) Bai, eta ezarritako epeak ez aplikatzea dakar gainera.
- 36d) Ez, debekaturik dago.

**37 ADMINISTRAZIOAK NOIZNAHI ZUZEN DITZAKE BERE EGINTZETAKO AKATSAK; EGIA AL DA?**

- 37a) Bai, egia da. Egitezko akatsak nahiz zuzenbidezkoak zuzen ditzake.
- 37b) Bai, baina egitezko akatsak bakarrik.
- 37c) Bai, baina zuzenbidezko akatsak bakarrik.
- 37d) Ez, ez egitezko akatsak, ez zuzenbidezkoak ezin ditzake zuzendu.

**38 ZEIN EPE DAGO USTEZKO ADMINISTRAZIO-EGINTZA BATEN KONTRA GORA JOTZEKO ERREKURTSOA JARTZEKO?**

- 38a) Hamar egun.
- 38b) Hilabete bat.
- 38c) Hiru hilabete.
- 38d) Sei hilabete.

**39 ADMINISTRAZIOAK ONDARE-ERANTZUKIZUNA IZANEZ GERO ZERBAITENGATIK, BA AL DAGO DIRUAREN ORDEZ GAUZA BAT EMATEA KALTEORDAINTZAT?**

- 39a) Bai, baldin eta lege sektorial batek berariaz hala aurreikusten badu.
- 39b) Bai, baldin eta Administrazioak komenigarri irizten badio.
- 39c) Bai, baldin eta interesatuarekiko akordioa badago horretarako.
- 39d) Ez, beti ordaindu behar da dirutan.

**40 ZER GERTATZEN DA ONDARE-ERANTZUKIZUNEZKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEAN EZ BADA EZARRITAKO EPEAN BERARIAZKO EBAZPENIK EMATEN?**

- 40a) Kalteordin-eskaera onartu egin dela jotzeko aukera izango da.
- 40b) Kalteordin-eskaera ezetsi egin dela jotzeko aukera izango da.
- 40c) Kalteordin-eskaera preskribatu egin dela jotzeko aukera izango da.
- 40d) Administrazio-prozedura iraungi egin dela jotzeko aukera izango da.

- 41 BA AL DAGO ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZE MOTAREN BAT JARDUERA BAT HASTEKO AUKERA EMATEN DUENA PERTSONA INTERESATUAK AURKEZPENA EGITEN DUEN EGUNETIK BERTATIK?**
- 41a) Bai, aldez aurreko komunikazioa.  
 41b) Bai, baimena.  
 41c) Bai, emakida.  
 41d) Ez; Administrazioak zer edo zer adierazi arte jarduera ezin da hasi, inoiz ere ez.
- 42 ERREBOKA AL DITZAKE ADMINISTRAZIOAK LIZENTZIAK KALTEORDAINIK EMAN GABE?**
- 42a) Bai, lizentzia emateko baldintzak ez betetzean oinarritzen bada errebokazioa.  
 42b) Bai, balorazio-irizpide berriak ezarri izatean oinarritzen bada errebokazioa.  
 42c) Bai, lizentzia akatsez eman izateagatik deuseztatu izatean oinarritzen bada errebokazioa.  
 42d) Ez, inoiz ere ez.
- 43 BA AL DAGO KONTRATAZIOKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURETAN MODALITATERIK PUBLIZITATERIK GABE IZAPIDETZEKO AUKERA EMATEN DUENIK?**
- 43a) Bai, modalitate guztiak ematen dute aukera hori.  
 43b) Bai, prozedura murriztuak ematen du aukera hori.  
 43c) Bai, prozedura negoziatuak ematen du aukera hori.  
 43d) Ez, prozedura batek ere ez du ematen aukera hori.
- 44 SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEARREN ARABERA, EZINBESTEKO BALDINTZA IZANGO DA, ORO HAR, ESPAINIAR ENPRESARIAK BEHAR BEZALAKO SAILKAPENA IZATEA HERRI-ADMINISTRAZIOEKIN ZENBATEKO HONETAKO OBRA-KONTRATUAUAK GAUZATZEA KONTRATATZEKO:**
- 44a) 350.000 euroko edo zenbateko handiagoko obra-kontratuak.  
 44b) 250.000 euroko edo zenbateko handiagoko obra-kontratuak.  
 44c) 150.000 euroko edo zenbateko handiagoko obra-kontratuak.  
 44d) 95.000 euroko edo zenbateko handiagoko obra-kontratuak.
- 45 DATU PERTSONALAK BABESTEAREN ARLOAN, JO AL DAITEKE ADMINISTRAZIO-ORGANO BAT "FITXATEGIAREN EDO TRATAMENDUAREN ARDURADUNTZAT"?**
- 45a) Ez, nortasun juridikorik ez duelako.  
 45b) Bai, pertsona juridiko publikoa delako.  
 45c) Bai, baldin eta tratamenduaren zertarakoaz, edukiaz eta erabileraz erabakitzten badu.  
 45d) Bai, tratamenduaren gai diren datuen titular baldin bada.
- 46 BEHIN DATU PERTSONALAK TRATATZEKO BAIMENA EMAN ONDOREN, BA AL DAGO BAIMENA ERREBOKATZEA?**
- 46a) Ez, baimena ezin da errebokatu.  
 46b) Bai, baina eskritura publikoan formalizatu behar da.  
 46c) Bai, baina posta ziurtatuaren bidezko komunikazioa behar da.  
 46d) Bai, bitarteko erraz eta doako baten bidez.

**47 LANPOSTU BATEN JABEA DEN KARRERAKO FUNTIZONARIOA ALDI BATEZ ORDEZKATZEKO:**

- 47a) Behin-behingo funtzionarioa hartzen da.
- 47b) Aldi baterako lan-kontratudun langilea hartzen da.
- 47c) Bitarteko funtzionarioa hartzen da.
- 47d) Aldi baterako karrerako funtzionarioa hartzen da.

**48 LANPOSTUAK, ENPLEGU PUBLIKOA EGITURATZEKO OINARRIZKO ANTOLAKETA-UNITATEAK, HONAKO HAUEK DITU BEREIZGARRI:**

- 48a) Eskumenak eta eginkizunak.
- 48b) Eginkizunak eta atazak.
- 48c) Eskumenak eta erantzukizunak.
- 48d) Eginkizunak eta erantzukizunak.

**49 FUNTZIONARIOAK HAUTATZEKO LEHIAKETA-SISTEMA:**

- 49a) Izendapen askeko plazak betetzeko bakarrik erabil daiteke.
- 49b) Behin-behingo langileak hautatzeko erabiltzen da.
- 49c) Salbuespenezkoa da eta legeak hala ezartzen duenean bakarrik erabil daiteke.
- 49d) Salbuespenezkoa da eta gobernuaren dekretu batek hala ezartzen duenean bakarrik erabil daiteke.

**50 FUNTZIONARIO PUBLIKOEN ORDAINSARIETAKO OSAGAI DIRA:**

- 50a) Destino-osagarria, lanaldi normaletik kanpora emandako zerbitzuengatik ematen diren haborokinak eta emandako zerbitzuari dagozkion kalte-ordinak.
- 50b) Soldata, lanaldiaren osagarria eta produktibitate-osagarria.
- 50c) Aparteko ordainsariak, produktibitate-osagarria eta emandako zerbitzuari dagozkion kalte-ordinak.
- 50d) Hirurtekoak, berariazko osagarria eta lanaldi normaletik kanpo ematen diren zerbitzuengatik ematen diren haborokinak.

**51 PROZEDURA HAUETAKO BAT EZIN DA BALIATU EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO FUNTZIONARIOEN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO; ZEIN?**

- 51a) Salbuespeneko eta presako kasuetan beren beregi egiten diren proba espezifikoak.
- 51b) Langileak hautatzeko prozesuetan egiten diren probak.
- 51c) B ereduco derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakaskuntza gainditzea.
- 51d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan lekualdatze-lehiaketa batean beren beregi horretarako egiten den probetarako deialdia.

**52 HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA BETETZETIK SALBUESTEN DIREN KASUEN ARTEAN EZ DAGO:**

- 52a) Lanaldi partzialeko arduraz ematea zerbitzuak.
- 52b) Behar diren trebetasun eta gaitasunetan gabezia nabarmena eta egiaztua izatea.
- 52c) Plangintza-aldea hastera doanean 45 urte baino gehiago izatea.
- 52d) Ikasketa eragozten edo ezinezko bihurtzen duen elbarritasuna izatea.

**53 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO FUNTZIONARIO-KIDEKOAK HONAKO KATEGORIA HAUEN ARABERA SAILKATZEN DIRA:**

- 53a) Goi-mailako kidegoak, erdi-mailako kidegoak, administrazio-kidegoak eta administrazio-laguntzaileen kidegoak.
- 53b) Kidego orokorrak eta kidego bereziak.
- 53c) Kidego orokorrak eta teknikarien kidego bereziak.
- 53d) Kidego orokorrak, teknikarien kidegoak eta eskalak.

**54 SEMEA EDO ALABA ZAINTEZEKO ESZEDENTZIAREN KASUAN:**

- 54a) Nahitaezkoa izango da lehentasunezkotzat jotako prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- 54b) Eszedentzian emandako denbora kontuan hartuko da eskubide pasiboetarako, baina ez hirurtekoak osatzeko.
- 54c) Salbuetsi egiten da bateraezintasunen araubidearen aplikazioa.
- 54d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**55 EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOETAKO GOI-KARGUAK DIRA:**

- 55a) Sailburuak, sailburuordeak eta zuzendariak.
- 55b) Sailburuordeak eta zuzendariak.
- 55c) Sailburuordeak, zuzendariak eta zuzendariordeak.
- 55d) Sailburuordeak, idazkari nagusi teknikoak eta zuzendariak.

**56 BADAGO LUZATZEA EKOIZPENAREN GORABEHERRAK DIRELA-ETA EGITEN DEN LAN-KONTRATUA...**

- 56a) Baldin eta hasierako iraupena sei hilabete baino gutxiago izan bazen, eta gehienez ere sei hilabetez.
- 56b) Baldin eta hasierako iraupena hamabi hilabete baino gutxiago izan bazen, eta gehienez ere hamabi hilabetez.
- 56c) Kontratuaren hasierako iraupen-eparearen ondotik beste sei hilabetez.
- 56d) Ezin da inoiz ere luzatu.

**57 ERRETIRO PARTZIALAK...**

- 57a) Lan-kontratua iraungitzea dakar.
- 57b) Ez dakar lan-kontratua iraungitzea.
- 57c) Bitarteko lan-kontratua egin beharra dakar.
- 57d) Ez dakar lan-kontratua iraungitzea, eta aldi berean txanda-kontratu bat egin behar da.

**58 BULEGOKO ARTXIBOTIK ZEIN ARTXIBO-MAILATARA ALDATU BEHARKO LIRATEKE  
EMAKUNDEREN ZUZENDARITZA-KONTSEILUAREN 2005. URTEKO AKTAK?**

- 58a) Lehendakaritzaren artxibora.
- 58b) Artxibo orokorrera.
- 58c) Erakunde artxibo nagusira.
- 58d) Artxibo historikora.

**59 ZER DATU EDUKI BEHAR DITU ESPEDIENTE BAT OSATZEN DUTEN AGIRIAK  
GORDETZEKO KARPETAK?**

- 59a) Espedientearen zenbakia, eskatzailea eta agiri-kopurua eta gaia.
- 59b) Espedientearen zenbakia, hasiera- eta amaiera-datak, eskatzailea eta agiri-kopurua.
- 59c) Espedientearen zenbakia, hasiera- eta amaiera-datak, eskatzailea eta gaia.
- 59d) Espedientearen zenbakia, eskatzailea, gaia eta eskabidearen sarrera- eta irteera-datak.

**60 NOLA ESATEN ZAIO ADMINISTRAZIO-JARDUERA BAT GAUZATZEAN SORTZEN  
DIREN AGIRIEN ETA ESPEDIENTEEN MULTZOARI?**

- 60a) Kontserbazio-egutegia.
- 60b) Agiri-mota.
- 60c) Dokumentu-saila.
- 60d) Sailkapen-koadroa.

**61 ZEIN HIZKUNTZATAN EMAN BEHAR DITUZTE ERREGISTROEK ESKABIDEAK ETA  
IDAZKIAK AURKEZTU IZANAREN JASO-AGIRIAK?**

- 61a) Erregistroko arduradunak egoki irizten dion hizkuntzan.
- 61b) Bi hizkuntza koofizialetan.
- 61c) Interesatuak hautatutako hizkuntzan.
- 61d) Beti gaztelaniaz.

**62 JATORRIZKO AGIRIAK KONPULTSATZEKO ERREGISTROEK ERABILTZEN DITUZTEN  
ZIGILUEN EDUKIA:**

- 62a) Erregistroaren klasea eta egoitza eta "jatorrizkoarekin bat dator" esakunea.
- 62b) Kopia konpultsatua ematen duen organoa zein den eta kopia konpultsatua norako den.
- 62c) Kopia konpultsatua ematen duen pertsona eta organoa nortzuk diren eta konpultsa noiz egin den.
- 62d) Kopia konpultsatua noiz zigilatu den.

**63 ZER GORDE BEHAR DA ERREGISTROETAN?**

- 63a) Herritarrek aurkeztutako agirriak.
- 63b) Sarrerako eta irteerako idazpenak.
- 63c) Herritarrek aurkeztutako agirien kopiak.
- 63d) Erregistroetan ez da gorde behar inolako daturik ez dokumenturik.

**64 ZEIN DA KOPIA KAUTOAREN BALIOA?**

- 64a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorean edo organismo autonomoetan izapideutako administrazio-espedienteetarako balio du bakarrik.
- 64b) Estatuko Administrazio Orokorean izapideutako administrazio-espedienteetarako balio du bakarrik.
- 64c) Informazio-balioa du.
- 64d) Administrazio- eta lege-balio osoa du pertsona guztien aurrean.

**65 SINADURA ELEKTRONIKOAK AGIRIAREN EDUKIAREN OSOTASUNA ZIURTATZEN DU; ZER ESAN NAHI DU HORREK?**

- 65a) Esan nahi du jasotako informazioa dela jatorrizkoa.
- 65b) Esan nahi du pertsona sinatzaileak ezin diola uko egin sinatutako agiriari.
- 65c) Esan nahi du jasotako informazioa ez dela ez aldatu ez manipulatu transmisioa egiterakoan.
- 65d) Esan nahi du sinatzailearen nortasuna ziurtatzen duela.

**"JAKITEA BEZERO/ERABILTZAILEEK ZER BEHARRIZAN DITUZTEN GAUR EGUN ETA ZER BEHARRIZAN IZAN DITZAKETEN, ETA BALIO IRAUNKORRAK SORTZEA HAIENTZAT" ESALDIA LOTUTA DAGO KALITATEAREN HONAKO OINARRIZKO KONTZEPTU EDO BALIO ZENTRALAREKIN:**

- 66a) Emaitzak helburu.
- 66b) Egitateetan eta datuetan oinarritutako kudeaketa.
- 66c) Bezeroak helburu.
- 66d) Antolakunde osatzen duten pertsonen garapena eta parte-hartzea.

**67 ZERBITZUEN KATALOGOA HONELA DEFINITZEN DUGU:**

- 67a) ...idatzizko dokumentua da eta, beraren bidez, antolakundeek jendaurrean azaltzen dute zer zerbitzu kudeatzen dituzten eta zer konpromiso duten zerbitzuen kalitatearekin; orobat, azaltzen dute zer eskubide eta betebehar dituzten herritarrek eta zuzeneko erabiltzaileek.
- 67b) ...idatzizko dokumentua da eta, beraren bitartez, antolakundeek jendaurrean azaltzen dute zer zerbitzu kudeatzen dituzten eta zerbitzu horiek emateagatik zer prezio eskatzen duten.
- 67c) ...idatzizko dokumentua da eta, beraren bitartez, antolakundeek jendaurrean azaltzen dute zer zerbitzu kudeatzen dituzten, zerbitzu horiek zein egoitza eta bulegotan kudeatzen diren eta zein ordutegiren arabera ematen diren.
- 67d) ...idatzizko dokumentua da eta, beraren bitartez, antolakundeek jendaurrean azaltzen dute pertsona jakin batek edo kolektibo jakin batek epe jakin batean zer zerbitzu eskatu dituen, bai eta zein emaitza lortu dituzten kalitate-adierazleen bitartez.

**68 5S METODOLOGIA:**

- 68a) Japonian sortu zen 80ko urteetan, eta antolakundeak epe ertain-luzean dituen helburuen plangintza estrategikoa egiten laguntzen digu.
- 68b) AEBetan sortu zen 60ko urteetan, eta antolakundeak epe ertain-luzean dituen helburuen plangintza estrategikoa egiten laguntzen digu.
- 68c) AEBetan sortu zen 80ko urteetan, eta bere 5 faseen bitartez, lantokia antolatzen laguntzen digu, beharrezkoak eta beharrezkoak ez direnak bereiziz, zikinka eta anomaliak ezabatuz eta, ezarritako arauak errespetatuz, etengabeko hobekuntzarako modua emanez.
- 68d) Japonian sortu zen 60ko urteetan, eta bere 5 faseen bitartez, lantokia antolatzen laguntzen digu, beharrezkoak eta beharrezkoak ez direnak bereiziz, zikinka eta anomaliak ezabatuz eta, ezarritako arauak errespetatuz, etengabeko hobekuntzarako modua emanez.

- 69 ORDENAGAILU BATEAN, PLAKA NAGUSIKO HEDATZE-ERREtenak, ORDENAGAILUAN INSTALATZEN DIREN GAILU PERIFERIKOEN EDO HARDWARE-GAILUEN TXARTELAK SARTZEKO EDO KONEKTATZEKOAK, NOLA DEITZEN DIRA?**
- 69a) Bus-ak.  
 69b) Atakak.  
 69c) USB-ak.  
 69d) Slot-ak.
- 70 ADIERAZI FOTOKOPIAGAILUEN INGURUKO BAIEZTAPEN HAUEN ARTEAN ZEIN DEN GEZURRA.**
- 70a) Fotokopiagailua pizten denean, aldi bat behar du berotzeko, 10 segundo eta 10 minuto artekoa.  
 70b) Egungo fotokopiagailuek aukera ematen dute PC batetik dokumentuak inprimatzeko.  
 70c) Egungo fotokopiagailuetan orrialde bakarrean idatzitako jatorrizkoen kopiak bi orrialdetan egin daitezke.  
 70d) Komeni da aldika-alika esposizio-pantaila garbitzea disolbatzailerentzat batekin eta zapi batekin.
- 71 PAPERezko AGIRIAK IRUDI DIGITAL BIHURTU ETA PC BATEAN GORDETZEKO AUKERA EMATEN DUTEN APARATUA DEITZEN DA:**
- 71a) Laser inprimagailua.  
 71b) Eskanerra.  
 71c) Telefaxa.  
 71d) Mikroprozesadorea.
- 72 ADMINISTRAZIO-PROZEDURARI BURUZKO LEGEDIAK HONAKO HAU JASOTZEN DU HERRITARREK ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETAN DITUZTEN ESKUBIDEEN ARTEAN:**
- 72a) Herritarrek, procedura batean interesatu izaera dutenean, trimitazioa zertan den edozein unetan ezagutzeko eskubidea.  
 72b) Prozeduran entzunaldi-izapidearen ondorengo edozein unetan alegazioak egiteko eta agiriak aurkezteko eskubidea.  
 72c) Erregistroetara eta espediente bat osatuz administracio-artxiboetan dauden agirietara sarbidea izateko eskubidea, betiere espediente horiek eskabidea egiteko unean amaitu gabe dauden prozesuetakoak badira.  
 72d) Hirugarren pertsonen intimitateari buruzko datuak dituzten agirietara sarbidea izateko eskubidea.
- 73 ADMINISTRAZIO-PROZEDURARI BURUZKO LEGEDIAK ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN INTERESDUNTZAT JOTZEN DITU:**
- 73a) Adin nagusiko herritarrok, denak.  
 73b) Onartutako erabakiaren eragina jasan lezaketen eskubideak dituztenak.  
 73c) Ebazpenaren eragina jasan lezaketen bidezko interesak dituzten pertsonak, prozedura behin betiko ebatzi ondoren pertsonatzen direnak.  
 73d) Administrazio jarduleak.

- 74 GERTAKARI JAKIN BAT EGIAZTATZEKO ERABILTZEN DEN ADMINISTRAZIO-TESTUA, GERTAKARI HORREN ZIURTASUNA BAIEZTATZEN DUENA, HERRI-ADMINISTRAZIOAN TESTU Hori ONETSI DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUNPEAN. NOLA DEITZEN ZAIO ADMINISTRAZIO-TESTU MOTA HORRI?**
- 74a) Ziurtagiria.  
 74b) Jakinarazpena.  
 74c) Ebazpena.  
 74d) Eginbidea.
- 75 ESPEDIENTEETAN AZALDUTAKO ARAZOEI KONPONBIDEA EMANEZ ADMINISTRAZIO-PROZEDUREI AMAIERA EMATEN DIETEN AGIRIEI, NOLA DEITZEN ZAIE?**
- 75a) Erabakiak.  
 75b) Txostenak.  
 75c) Ebazpenak.  
 75d) Ofizioak.
- 76 ONDOKO BAIEZTAPEN HAUEN ARTEAN, ZEIN DA EGOKIA, ADMINISTRAZIO-AGIRIAK IDAZTEAZ ARI GARELA?**
- 76a) Administrazio-hizkeran menpeko esaldiak erabili behar dira gehienetan, hobeto azaltzen baitituzte pentsamenduaren ñabardurak.  
 76b) Administrazio-hizkeran hobe da esaldiko osagaien berezko ordena nolabait aldatzea, diskursoari barietate handiagoa ematen baitzaio.  
 76c) Administrazio-hizkeran egokiagoa da boz aktiboa erabiltzea, hartara hobeto adierazten baita zein den ekintzaren arduraduna.  
 76d) Administrazio-hizkeran hobe da estilo nominala erabiltzea, esanahi handiagoa ematen baitzaie aditzei.
- 77 NOLA DEITZEN ZAIE, NORMALEAN, ADMINISTRAZIO-ORGANOEN ARTEKO KOMUNIKAZIOEI?**
- 77a) Jakinarazpenak.  
 77b) Ofizioak.  
 77c) Txostenak.  
 77d) Gutunak.
- 78 NORK EGITEN DITU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORRAK?**
- 78a) Eusko Jaurlaritzak.  
 78b) Eusko Legebiltzarrak.  
 78c) Ekonomia eta Ogasun sailburuak  
 78d) Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek.

**79 NORI DAGOKIO AURREKONTUEN ETA AURREKONTU-EGIKARITZEAREN KANPO KONTROLA?**

- 79a) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari.
- 79b) Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.
- 79c) Arartekoari.
- 79d) Emakunderi.

**80 AURREKONTUEN ALDAKETA HAUEN ARTEAN, ZEINEK EZ DIO ERAGITEN AURREKONTUEN OSOTASUNARI?**

- 80a) Kredituak gaitzeak.
- 80b) Kredituak gehitzeak.
- 80c) Kredituen transferentziak.
- 80d) Eskumenak edo zerbitzuak aldatzeak.

**81 GASTUAK BAIMENTZEA ADMINISTRAZIO-EGINTZA BAT DA, ETA, BERAREN BITARTEZ:**

- 81a) Gastua gehienezko zenbatekoaren (zehatza edo gutxi gorabeherakoa) arabera egitea erabakitzetan da, ordainketa-kreditu jakin baten kargura, zenbateko osoa edo haren zati erabilgarri bat horretarako erreserbatuz.
- 81b) Gastua gehienezko zenbateko zehatz baten arabera egitea erabakitzetan da, ordainketa-kreditu jakin baten kargura, zenbateko osoa edo haren zati erabilgarri bat horretarako erreserbatuz.
- 81c) Gastua gehienezko zenbatekoaren (zehatza edo gutxi gorabeherakoa) arabera egitea erabakitzetan da, konpromiso-kreditu jakin baten kargura, zenbateko osoa edo haren zati erabilgarri bat horretarako erreserbatuz.
- 81d) Gastua gutxieneko zenbatekoaren arabera (zehatza edo gutxi gorabeherakoa) egitea erabakitzetan da, ordainketa-kreditu jakin baten kargura, zenbateko osoa edo haren zati erabilgarri bat horretarako erreserbatuz.

**82 EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO DIRUZAINZA NAGUSIAREN KARGURA EGITEN DIREN ORDAINKETAK:**

- 82a) Banku-sisteman onartutako edozein modalitate edo bitartekoren bidez egin daitezke, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantza Legea garatzeko xedapenetan kasuan kasurako ezarritakoarekin bat etorriz.
- 82b) Banku-txekearen bidez bakarrik egin daitezke, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantza Legea garatzeko xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.
- 82c) Zuzenbidean onartutako edozein modalitate edo bitartekoren bidez egin daitezke, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantza Legea garatzeko xedapenetan kasuan kasurako ezarritakoarekin bat etorriz.
- 82d) Zuzenbidean onartutako edozein modalitate edo bitartekoren bidez egin daitezke, Estatuko Administrazio Orokorraren Finantza Legea garatzeko xedapenetan kasuan kasurako ezarritakoarekin bat etorriz.

**83 DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN DEFINIZIO BAT IZAN DAITEKE:**

- 83a) Administrazioak aurrekontu-ekitaldian zehar, hau da, urte naturalean zehar, likidatu beharreko diru-sarrera guztien aurreikuspena.
- 83b) Bost aurrekontu-ekitalditan zehar Administrazioak likidatu beharreko diru-sarrera urte anitzeko guztien aurreikuspena.
- 83c) Administrazioak aurrekontu-ekitaldian zehar, hau da, urte naturalean zehar, bildu beharreko zuzenbide pribatuko diru-sarrera guztien aurreikuspena.
- 83d) Foru-diputazioek EAEko Administrazioaren aurrekontu-gastuetarako kontribuzio gisa aurrekontu-ekitaldian zehar egingo dituzten ekarpenen aurreikuspena.

**84 SAILKAPEN EKONOMIKOARI BEGIRA, DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN 4. KAPITULUAK HONAKO HAUEK BILTZEN DITU:**

- 84a) Gastu arruntetarako jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.
- 84b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak emandako maileguen itzulpena.
- 84c) Tasak, prezio publikoak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk, eta, horien artean, isunak.
- 84d) Zuzenbide pribatuko diru-sarrerak, eta, horien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiko banku-kontuetako interesak.

**85 NOLA KALKULATZEN DA EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA AURREKONTUA LIKIDATZEAN?**

- 85a) Diru-sarreren (aitortutako eskubideak) eta gastuen (aitortutako obligazioak) arteko aldea kalkulatuta.
- 85b) Diru-sarreren aurrekontuaren eta gastuen aurrekontuaren arteko aldea kalkulatuta.
- 85c) Egindako diru-kobratzeen eta ordainketen arteko aldea kalkulatuta.
- 85d) Gastatu gabeko aurrekontua kalkulatuta.

**86 ZEREZ OSATZEN DA ZORPETZE PUBLIKOA?**

- 86a) Zor publikoaren jaulkipenaz bakarrik.
- 86b) Finantza-erakundeekiko kreditu- edo mailegu-eragiketez bakarrik.
- 86c) Zor publikoaren jaulkipenez eta finantza-erakundeekiko kreditu- edo mailegu-eragiketez, baina Estatuko moneta nazionala bada bakarrik.
- 86d) Zor publikoaren jaulkipenez eta finantza-erakundeekiko kreditu- edo mailegu-eragiketez, diren moneta nazionalarekin edo atzerriko monetarekin eginak.

**87 ZER EGIN BEHAR DA AURREKONTU-EKITALDI BATEN HASIERAN AURREKONTUAK ONARTU GABE BADAUDE?**

- 87a) Onartu arte itxaron behar da.
- 87b) Aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu behar dira.
- 87c) Gobernuak behin-behineko aurrekontua onartu behar du dekretu bidez.
- 87d) Sail bakoitzak erabaki behar du bere aurrekontua.

- 88 LIBURUTEGI BATEKO OINARRIZKO PROZESU TEKNIKOETAN, ““INDEXAZIO” TERMINOA ZERI DAGOKIO?**
- 88a) Eskuratzeari.
  - 88b) Edukia aztertzeari.
  - 88c) Aurkibideari.
  - 88d) Mailegu-txartelari.
- 89 EUSKADIKO LIBURUTEGI-SISTEMA ZERTAN OINARRITZEN DA?**
- 89a) Euskal Kultura Ondarearen 7/2010 Legean.
  - 89b) Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean.
  - 89c) Euskadiko Liburutegiei buruzko 11/2007 Legean.
  - 89d) Euskadiko Liburuari buruzko 11/2009 Legean.
- 90 EUSKADIKO IRAKURKETA-SARE PUBLIKOA DA:**
- 90a) Euskadiko Liburutegi Sistemako osagaietako bat.
  - 90b) Euskadiko Liburutegiko osagaietako bat.
  - 90c) Kultura Ministerioko Sareko osagaietako bat.
  - 90d) Ez dago halakorik.
- 91 SAR AL DAITEKE EUSKADIKO LIBURUTEGI SISTEMAN LIBURUTEGI ESPEZIALIZATURIK?**
- 91a) Bai, Kultura Sailarekiko hitzarmenaren bidez.
  - 91b) Bai, Hezkuntza Sailarekiko hitzarmenaren bidez.
  - 91c) Ez, inolaz ere ez.
  - 91d) Ezin da jakin. Ez dago aurreikusita Legean.
- 92 LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO AZAROAREN 8KO 31/1995 LEGEAREN ARABERA, ENPRESARIAK ERAGINKORTASUNEZ BABESTEKO DUEN BETEBEHARRA HONELA GAUZATZEN DA:**
- 92a) Enpresako prebentzio-plan bat eginez, arriskuen ebaluazioa eginez, langileen osasuna zainduz eta prebentzio-antolaketa egokia sortuz.
  - 92b) Larrialdiaren eta arrisku larriaren kasuan neurri eraginkorrik hartzeko betebeharra besterik ez du.
  - 92c) Langileen osasun-egoera zainduko duela bermatu behar du bakar-bakarrik; kasu batzuetan, are lan-harremana amaitu ondoren ere.
  - 92d) Enpresako medikuen azterketak bermatu behar ditu, besterik ez.
- 93 LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO AZAROAREN 8KO 31/1995 LEGEAREN ARABERA, NOIZ GERTATZEN DA ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA?**
- 93a) Lan Ikuskaritzak enpresa edo administrazio bati eskatzen dionean bere Prebentzio Planari buruzko informazioa emateko.
  - 93b) Enpresan edo Administrazioan azpikontratatutako langileentzat bereziki arriskutsuak diren jarduerak gauzatzen direnean.
  - 93c) Lantoki berean enpresa edo administrazio bitako edo gehiagotako langileak ari direnean lanean.
  - 93d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**94 DATUAK BISTARATZEKO PANTAILAK ERABILTZEN DITUZTEN LANPOSTUETARAKO GOMENDATZEN DIREN LUMINANTZIA-MAILAK DIRA:**

- 94a) 100 lux baino gutxiago.
- 94b) 100 eta 300 lux bitartean.
- 94c) 300 eta 1.000 lux bitartean.
- 94d) 1.000 eta 1.300 lux bitartean.

**95 DATUAK BISTARATZEKO PANTAILAK ERABILTZEN DITUZTEN PERTSONEN ARTEAN, EPIKONDILITISA DA:**

- 95a) Kornearen nahasmendu bat, ikusmenaren nekea eragiten duena.
- 95b) Belaunei eragiten dien muskulu-lesio bat.
- 95c) Bizkarrezurreko lesio bat.
- 95d) Ukondoari eragiten dion lesio bat.

**96 HONAKO BAIEZTAPEN HAUETAKO BAT LARRIALDI-PLANEN HELBURUETAKO BATI DAGOKIO:**

- 96a) Larrialdi-plana aplikatu behar den eremuko lanpostuen arriskuak ebaluatzea.
- 96b) Eraikinak eta bere instalazioak ezagutzea, arriskurik handieneko sektoreak zein diren ezartzeko.
- 96c) Langileei prestakuntza ematea, lanpostuari dagozkion eginkizunak segurtasunez egiteko.
- 96d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**97 LANTOKIAN, SEINALEZTAPENA ERA HONETAKOA IZAN DAITEKE:**

- 97a) Ohartarazpen-seinaleak, debekuak, komunikazio piktografikoak eta idatzizko komunikazioak.
- 97b) 485/1997 Errege Dekretuak ezartzen duenez, suteen kontrako seinaleztapena, eraikinak husteko irteerak eta ibilbideak, eta larrialditako sorospena non dagoen, besterik ez.
- 97c) Panel gisa, argi-seinaleak eta soinu-seinaleak, hitzezko komunikazioak eta keinu bidezko seinaleak.
- 97d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**98 AUTOBABESERAKO PLAN BATEK HONAKO HAUEK EDUKI BEHAR DITU, EZARTZERAKOAN:**

- 98a) Aplikatu behar den eremuan lan egiten duten pertsona guztientzako eta eremu horretara sartzen diren guztientzako lehen laguntzako ikastaroen programa egoki bat.
- 98b) Beharrezko bitarteko eta baliabide ekonomikoen definizioa, hornidura eta kudeaketa.
- 98c) Aplikazio-eremura sartzen den jendeari argibideak ematea baizik ez.
- 98d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**99 ERREDURAK SAKONTASUNAREN ARABERA KALIFIKATZEAN, ERITEMA DA:**

- 99a) Lehen mailako erredura bat.
- 99b) Bigarren mailako erredura bat.
- 99c) Hirugarren mailako erredura bat.
- 99d) Eritema ez dator bat erreduren sakontasunaren araberako sailkapenarekin.

**100 LEHEN LAGUNTZEN ARLOAN, ZEIN DA EGIA, BAIEZTAPEN HAUEN ARTEAN?**

- 100a) Gorputzaren hedaduraren % 30 eta % 50 bitarteko erreduraren pronostikoa da erredura ez hain larria.
- 100b) Beheko gorputz-adar baten odol-jarioaren aurrean, torniketea egitea premia biziko jarduna da.
- 100c) Konbulsio-aldi oro da epileptikoa.
- 100d) Krepitazioa hezur-zati hautsien seinalea da.

## **ERRESERBAKO GALDERAK**

**101 EUROPAKO ERKIDEGOTAKO JUSTIZIA AUZITEGIAREN IZENA ALDATU EGIN ZEN, ETA, ORAIN, EUROPAR BATASUNEKO JUSTIZIA AUZITEGIA DEITZEN DA:**

- 101a) Nizako Tratatua indarrean sartu zenetik.
- 101b) Maastricht-eko Tratatua indarrean sartu zenetik.
- 101c) Lisboako Tratatua indarrean sartu zenetik.
- 101d) Maltako Tratatua indarrean sartu zenetik.

**102 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, JABEGO INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA:**

- 102a) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen konkurrentea da.
- 102b) Estatuaren eskumen esklusiboa da.
- 102c) Legegintzako garapenerako eskumena da.
- 102d) Euskal Autonomia Erkidegoaren betearazpen-eskumena da.

**103 GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEAK ZORTZI PRINTZIPIO OROKOR JASOTZEN DITU ADMINISTRAZIOEN JARDUNA GIDATZEKO. HORIEN ARTEAN:**

- 103a) Lankidetza- eta koordinazio-printzipioa.
- 103b) Ekintza bereziaren printzipioa.
- 103c) Mainstreaming delakoa.
